

GIZARTEA ▶

Oiangu babestea eskatu dute

Manifestazioa egin zuten atzo Oiangu Publikoa eta Bizirik taldeak deituta, egitasmoa gelditzeko eskatuz

MAIDER DEL OLMO

Oiangu Babes Berezik Natur Espaziotzat hartzea aldarrikatu zuten atzo. Manifestazioa egin zuten, plazatik abiatuta, Oianguko proiektua (golfa, paintball-a,...) gelditzeko eskatuz, Oiangu Publikoa eta Bizirik plataformak deituta. Plazan alegazioak sinatzeko mahaia ere jarri zuten.

Manifestazioak *Oiangu Publikoa eta Bizirik, Oiangu golfix ez, eta Oianguko pribatizazioari ez* leloa izan zuten. Plataformatik adierazi duenez, «Ordiziako Udala aste honetan biodibertsitatearen balorea al-

darrikatzen ari da hitzaldien bitartez, baina kontuan hartu behar dugu Oianguko onartu duen proiektua aldarrikatzen duenaren aurka doala, biodibertsitatea babestearren kontra», salatu dute.

Atxikimenduak

Manifestazioa babestu dutenen artean daude, beste batzuen artean: Abiadura Handiko Trenaren Aurkako taldea, EHNE sindikatua, Landarlan ingurumen elkarteak, Ezker Batua eta Ordiziarrak Gera alderdi politikoak. Atzo plataformaren kamisetak jantzita azaldu



Plazatik abiatuta manifestazioa egin zuten atzo arratsaldean. M. DEL OLMO

ziren haietako batzuk manifestazioa.

Aisigune egitasmoak Oianguko biodibertsitatean «inpartu larria» izango duela oharta-

razi zuten: basoan, ur puntzuan zelaian eta horietako faunan.

«Era berean, herritarrok partekatu erabiltzeko eta hartaz gozatzeko ditugun lurretan mu-

rrizketak eragingo ditu. Oian-guk, bere eremu txikia dela eta, parke naturalaren balioa ez badu ere, bere txikitasunean izugarriko aberastasuna du».

KULTURA ▶

Hamaika taldek parte hartuko dute bihar Dantzari Txiki Eguneko desfilean

Jakintza eta Urdaneta dantza taldeek antolatu dute ekimena

M. DEL OLMO

Jakintza eta Urdaneta taldeek antolatuta, Ordiziako Dantzari Txiki Eguna ospatuko dute bihar. Guztira hamaika taldek parte hartuko dute. Taldeei harrera goizeko hamaiketan egingo diete, eta mokadutxoia izango dute ondoren. Desfilea eguerdiko hamabietan hasiko da. Joxe Migel Barandiaran plazatik aterata.

Aurten Dantzari Txiki Egunean parte hartuko duten taldeak hauek dira: Amaiur (Iruñea), Otsokak (Ataun), Goruntz (Gabi-ria), Oin-Arin (Lazkao), Iztueta



Dantzari Txiki Eguna, iaz. m. o.

(Zaldibia), Aurtzaka (Beasain), Ostadar (Beasain), Irrintzi Alai (Legorreta), Iratzarri (Zarautz) eta Jakintza eta Urdaneta.

Desfilearen ibilbidea honako hau izango da: J.M. Barandiaran plaza-Garagartza plaza-Urdaneta kalea-Santa Maria kalea eta Barrena.

Alardea 13:15 inguruan egingo dute, eta bazkaria izango da ondoren. Bazkaria dantzari guztiak elkarrekin egingo dute Beti Alai pilotalekuan.

Bazkalondoa, arratsaldean umeentzako herri kirolak izango dira, 16:00etatik 18:00etara bitartean.

PILOTA ▶

Aiestaran txapelketan izena emateko aukera

Gomazko paletako jardunaldi herrikoiki jokatuko dira aurten hirugarren urtez

M. DEL OLMO

Gomazko paletan Xabi Aiesteran Txapelketa herrikoia jokatu da hirugarren urtez. Txapelketan izena emateko azken eguna astelehena da.

Parte hartzeko beharrezkoa da ordiziarra izatea. Ordizian jaioa izatea edo Ordiziako kirol elkarte edo bestelako elkartaren bateko partaide izatea. 20 euro ordaindu behar da bikoteko. Partidak ostiralean, larunbatetan eta igandetan jokatu dira. Finalisten-tzako txapela eta trofeoak

egongo dira. Izen-ematea bi modutara egin daiteke: Olano tabernako orrian edo zenbaki honetara deituta: 665 750 064.

OHARRA ▶

Elkarlanak gaur AHTren kontra Donostian deitu duen manifestazioa babestu dutenen zerrenda argitaratu genuen atzo; Aramako Udala ez zen agertzen zerrendan, baina udal horrek ere atxikimendua eman du.

Harpidedunen txokoa

HITZAK, bere harpidedunen artean, **GOIERRIKO BARATZAN** erabiltzeko 50 €-ko 2 erosketa txartel zozkatuko ditu

ZORTE ON!!

Parte hartzeko

deitu 943 889612 (zenbaki berria)

edo 943 160056ra (17:00ak arte)

idatzi gh@goierriko-hitza.info helbidera



Goierri kalea 2.
20240 ORDIZIA
Tel: 943 087498

Email:
goierrikobaratza@euskalnet.net
www.goierrikobaratza.com